

# **SEGMENTAZIOA**

Gure produktua, batez ere, ingurumenariko kontzientzia dutenentzat edota eguneroko bizimodua errazten eta ongizatea bermatzen dioten produktuen bila dabiltzanei zuzenduta dago.

Bezeroak 18 urtetik gorako gizon-emakumeak izango dira, adin horretatik beherako pertsonak ez dituztelako etxe propioak izaten (oro har). Are gehiago, ikerketen arabera, etxe berriaren eroslearen batez-besteko adina 41 urtekoa da (Europaren batez-besteko adina baino 7 urte beranduagokoa). Hori kontuan izanda, gure produktua 35-45 urteen arteko pertsonentzat bideratuta dago batez ere. Izan ere, etxe bat erosteko eta gure plaka jartzeko aukera gehien dituen adin tartea da.


Bestalde, produktu hau instalatzeko bitartekari instalatzaile baten laguntza beharko du bezeroak, bere kabuz ezin izango duelako xafla leihoan jarri .

2020ko azken inkesten arabera, konkretuki Greta efektua espainiar biztanleen kontsumoan aztertzen duen inkesten arabera, gaur egungo gazteen %61 prest daude produktu jasagarri eta ekologikoengatik gehiago ordaintzeko. Geroz eta interes eta kontzientzia handiagoa dago arazo honi buruz eta horregatik, gaiari buruzko interesa nabarmenki handitu da.

Onurei dagokienez, ondorengo bi gauza hauek gure enpresari onurak ekar ditzakete, jende askoren erosteko interesa piztu dezakeelako:

- Gizabanako bakoitzaren ongizatean eta mundu mailaren bilakaeran interesa duen pertsona oro gure enpresari on egingo dio, horiek direlako gure enpresaren helburuak. Plakeei esker ingurumenari laguntza eskaintzen diogu; hau da, gure planetari.
- Gure produktuari esker esfortzu handirik egin gabe (manualki, automatikoki) etxearen argitasun sarrera eta beroa erregulatu dezake, erosotasun osoz.

"EZ-EKOLOGIKOAK"  
39,0%



"EKOLOGIKOAK"  
61,0%